



## “B.3” HIRIGINTZA ONDAREAREN KATALOGOA



## AURKIBIDEA – “B.3” HIRIGINTZA ONDAREAREN KATALOGOA

1	SARRERA .....	3
1.1	KATALOGOAREN XEDEA .....	3
1.2	DOKUMENTU ITURRIAK.....	3
1.3	APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA.....	3
2	KATALOGATUTAKO ONDASUN ETA ELEMENTUEN ZERRENDA .....	4
2.1	ERAIKINEN EZAUGARRI OROKORRAK .....	4
2.2	INTERES BEREZIKO ERAIKINAK ETA ELEMENTUAK .....	5
2.3	INTERES BEREZIKO ERAIKINEN ETA ELEMENTUEN BABES ARAUBIDEA .....	7
3	HIRIGINTZA ARAUAK .....	7
3.1	KATALOGATUTAKO ELEMENTUAK BABESTEKO ARAUBIDEA FORMULATZEA.....	8
3.2	KATALOGATUTAKO ONDASUNAK ETA ELEMENTUAK BABESTEKO ARAUBIDEA.....	8
4	<b>BABESTUTAKO ONDAREA KOKAPENA</b> .....	9
5	BABESTUTAKO ONDAREA FITXAK.....	10



## **1 SARRERA**

### **1.1 KATALOGOAREN XEDEA**

Hirigintza-plangintzaren helburuetako bat udalerraren garapena jasangarritasunaren ikuspegitik egin dadin bermatzeko neurri egokiak definitzea da, udalerria egungo egoerara egokitzeko aukera eman ez baina etorkizunerako hipoteka larririk sortu gabe.

Testuinguru horretan, garrantzi berezia hartzen du jarduketa berriek balio kolektiboa duten elementuak arbitrarioki eta justifikaziorik gabe ez suntsitzeak, horien balio ekonomiko zuzena eta jabetza erregimena gorabehera. Horretarako, indarrean dagoen Hirigintza-legeriak Katalogoak arautzen ditu, arloz arlo indarrean dagoen legeria sektorialean ezarritako mekanismoen tresna urbanistiko osagarri gisa.

Ilido horretan, agiri honek Gaintzako udalerrian dauden interes historiko-arkitektoniko eta arkeologikoko ondasun eta elementuen multzoa definitzen du.

### **1.2 DOKUMENTU ITURRIAK**

Ezarritako zerrenda dokumentu hauetan jasotako informazioa eta datuak kontuan hartuta egin da:

- Euskal Kultura Ondarearen Zentroak emandako txostena.
- Ondare historikoaren zerbitzuak 2011n Eusko Jaurlaritzako Kultura Departamenduari babesteko eskatutako elementuen (baseri eta elizak) zerrenda.

### **1.3 APLIKATU BEHARREKO ARAUDIA**

Katalogo honetan bildutako elementu arkeologiko eta arkitektonikoak Euskal Kultur Ondarearen 2019ko maiatzaren 9ko 6/2019 Legeak eta hori aldatzen duen 14/2023 Legeak xedatutako erregimenari atxikiko zaizkio, bai eta horiei buruz eman diren edo etorkizunean eman daitezkeen xedapen espezifikoak eta proiektu honetan bertan xedatutako erregimenari ere.

6/2019 Legearen 3. Artikuluko 4. Puntuan ondasunen babeserako udalek garatu behar dituzten eginkizunak zehazten dira:

*“a) Babestu beharreko ondasunen hirigintza-katalogoak idaztea eta kudeatzea.*



- b) *Baimena ematea monumentu-multzoetan egin beharreko esku-hartzeei, lege honek horretarako bidea ematen duen kasuetan.*
- c) *Udal-mugar-tean dauden kultura-ondasunen hur-hurreko auri-egoeretan kalteak ekiditeko beharrezkoak diren neurriak hartzea, lege honetan xedatutakoarekin bat.*
- d) *Udal-mugar-tean dagoen kultura-ondarea sustatzea eta haren zabalkundea egitea.*
- e) *Lege honetan berariaz aitortutako gainerako eskumenak."*

Eraikinetan, daukaten babes mailaren arabera, egin ahal izango diren esku hartzeen ezaugarriak zehazteko, Ondare Hiritartua Eta Eraikia Birgaitzeko Jarduketa Babestuei buruzko, abenduaren 30eko, 317/2002 Dekretuko, I. eranskinak definitzen dituen **interbentzio erak erabiliko dira dokumentu honetan.**

**Gune arkeologikoei dagokienez, Balizko Arkeologia Guneak Finkatzeko Araudia ezartzen duen 234/1996 Dekretua aplikagarria izango da ere.**

## **2 KATALOGATUTAKO ONDASUN ETA ELEMENTUEN ZERRENDA**

### **2.1 ERAIKINEN EZAUGARRI OROKORRAK**

Gaintzako etxebizitzetarako eraikinen egungo egoeran desberdintasunak daude. Batzuk barrutik eraberrituta daude eta gaur egungo konfort-eskakizunekin bat datozen azpiegiturak eta espazioak jarri zaizkie, baina, oro har, baserri asko daude egoera hondatuan edo eraberritze integralaren beharrean. Beste bakar batzuetan, berrikuntza lanak kanpoan bakarrik egin dira. Mantentze lan ohikoenak teilatuak konpontzekoak izan dira. Kasu batzuetan, zurezko elementuak zituzten estalki zaharrak material bereko egiturez ordezkatu dira eta, beste batzuetan, hormigoï armatuzko egitura eman zaie.

Eraikin gehienek altuera banaketan eredu hau jarraitzen da: beheko solairua edo erdisotoa (bertako topografiaren arabera), bizitza bat eta ganbara edo mandioa teilatupean. Etxe bizitzarako eremuak ez du beti solairu osoa hartzen, eta kasu askotan ganbara handitzeko ere erabiltzen da; izan ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietarako eraikinak direnez, erabilera horiek etxe bizitzakoekin konbinatzen dituzte, eta ustiapenerako espazioa oso garrantzitsua izaten da.

Kasu askotan, bi solairuetan ibilgailuak kanpotik zuzenean sartzeko aukera izaten da, bai topografia aprobetxatuz, edo bai orgak eta traktoreak goiko solairura sartzeko arrapalak erabiliz.



Fatxadak, oro har, lauak dira, hegalkin eta begiratokirik gabeak, baina eraikin nobleenetan ohikoa da ezkaratzak eta espazio ireki estaliak aurkitzea eguraldi txarretik babesteko.

Materialeei dagokienez, jatorrizko egitura zurezkoa izaten da, baina kasu batzuetan hormigoizko elementuen bidez ordezkatu da. Kanpoko karga-hormak harrizkoak izaten dira, eta estalkia, gehienetan, bi isurialdekoa, zeramikazko teila kurbatuz amaitua.

Fatxaden kanpoaldeko akabera harriz eta entokatuz egin ohi da, kasu batzuetan karearekin zurututa. Fatxada batzuetan, egurrezko egitura nagusia bilbadura moduan agertzen da kanpoaldera, eta hutsarteak bai bistako adreiluz, bai harlangaitz entokatuz edo bai pieza irregularrez egindako egurrezko lataduraz betetzen dira. Kanpoko arotzeria egurrezkoa izaten da.

Baserri askotan, eta denboran zehar, horiei atxikitako eranskinak eraiki dira. Horietako batzuetan, etxe bizitza kokatu da, eta baserriaren gainerakoa abereentzako ukuilua eta lastoa eta belar ondua gordetzeko erabili da. Era berean, ohikoa da baserriek lastategi handiak izatea atxikita, erabat egurrezkoak.

Eraikin berriei dagokienez, etxe bizitza bakartuen tipologiakoak dira nagusi, lurzati pribatua dutenak, eta baita ere dentsitate txikiko bloke bakartuetan eraikitakoak. Gainerako eraikin berriak familia bakarreko etxe bizitzak dira, kasu askotan lehendik dauden ustategiei lotuak.

## **2.2 INTERES BEREZIKO ERAIKINAK ETA ELEMENTUAK**

Interes bereziko eraikinei dagokienez, dokumentu bat osatu da Euskal Kultura Ondarearen Zentroak emandako txostenean oinarrituta, non, Gaintzako udalerrian interes historiko-arkitektonikoko elementu, eraikin eta multzoen zerrenda hau jasotzen den:

### ONDARE ARKITEKTONIKOA

Deklaratzeko proposatutako higiezinak (6/2019 Legearen ondorioetako Oinarrizko babesa duen kultura ondasun bezala):



FITXA ZK.	IZENA	AUZOA	ESKU-HARTZEKO ARAUBIDEA
2	SAN MIGUEL ELIZA	Gaintza Auzoa	
6	GOROSTIZU HAUNDI BASERRIA	Gorostizu Auzoa	Zaharberritze kontserbatzailea
7	AGERRE BASERRIA	Agerre Auzoa	

Udal plangintzan udal babeseko kultura-ondasun gisa sartu eta tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoak:

FITXA ZK.	IZENA	AUZOA
1	DONE MARTIE TOURSKOAREN TENPLUA	Eizmendi Auzoa
3	ARANBURU BEKOA BASERRIA	Agerre Auzoa
4	AMIAMA BASERRIA	Mendizabal Auzoa
5	<b>VENTA-BERRI</b> BASERRIA	Gaintza Auzoa
8	ARMENDARIZ FRONTOIA	Hirigunea

#### ONDARE ARKEOLOGIKOA

Balizko arkeologia gunek:

FITXA ZK.	IZENA	MUGAKETAREN GAKOA
1	IRAZUSTAZPIKOA BASERRIA	A
2	IRAZUSTAGOENA BASERRIA	A
3	ORKAIZTEGI BASERRIA	A
4	SAN MIGUEL ELIZA	B
5	DONE MARTIE TOURSKOAREN TENPLUA	B
6	ARANBURUBEKOA BASERRIA	A

- (A) Eraikineko hormen arteko aldea
- (B) Eraikinaren hormen arteko eremua + 15 metro eraikinaren inguruan, kanpoko ertzetatik hasita
- (C) Elementuak hartzen duen eremua +5 metro haren inguruan, kanpoko ertzetatik abiatuta
- (D) Eraikinak eta erantsitako instalazioek hartzen duten eremua
- (E) Planoan zehaztutako eremua



### **2.3 INTERES BEREZIKO ERAIKINEN ETA ELEMENTUEN BABES ARAUBIDEA**

Monumentu izendatzeko proposamena duten ondasun higieziinei dagokienez, egin beharreko esku-hartzeak Zaharberitze Kontserbatzailekoak izatea gomendatzen da, Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. eranskinean "Birgaitzeko esku-hartzeak" zehazten den bezala.

Era berean, hirigintza-dokumentuaren katalogoan "6/2019 Legearen ondorioetarako oinarrizko babesak duten kultura-ondasunak" izeneko babes-talde espezifikoaren barruan sartzea gomendatzen da.

Ondare hori badaezpadako babes-ingurune batez hornitzeko, eraikuntza, instalazio edo hesirik gabe gutxienez 15 metroko tartea errespetatzea gomendatzen da, eta, nolana ere, ingurunearen ingurumen ezaugarriak ahulduko dituzten aldaketak saihestea.

Udal-babesko kultura-ondasun gisa babesteko proposatutako higiezinak Plan Orokorreko kultura-ondare babestuaren katalogoan sartzea gomendatzen da, eta, oro har, babesteko eta esku-hartzeko irizpide gisa, egiten diren obrek bolumetria, kanpoko irudia eta oinarrizko banaketa tipologikoa eta egiturazkoa errespetatzea, egituraren material generikoa mantenduz eta esku-hartze kategoriek erreferentziatzen hartuta "Sendotzea" eta/edo "Kontserbazioa eta Apaindura", Ondare urbanizatu eta eraikia birgaitzeko jarduketa babestuei buruzko 317/2002 Dekretuaren I. Eranskinean "Birgaitzeko esku-hartzeak" definitzen diren bezala.

Ondare arkeologikoari dagokionez, 1997ko irailaren 11ko Ebazpenak Gipuzkoako zenbait udalerriren Balizko Arkeologia Guneak izendatzen dituenak adierazitakoaren arabera, ustezko eremu horietarako adierazitako eremuan edozein obra-proiekturen aurretik, azterketa arkeologiko bat egin beharko da, eta Gipuzkoako Foru Aldundian arkeologia-arloko eskumena duen organoari aurkeztu beharko zaio. Azterketa horretan oinarrituta, honek erabakiko du proiektu arkeologiko bat gauzatu behar den ala ez, dagokion hirigintza lizentzia eman aurretik (Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legearen 65. artikulua).

### **3 HIRIGINTZA ARAUAK**



### **3.1 KATALOGATUTAKO ELEMENTUAK BABESTEKO ARAUBIDEA FORMULATZEA**

Katalogo honen helburua Gaintzako udalerrian indarrean dagoen Hirigintza legerian xedatutakoaren arabera formulatuta, ondasun eta elementu eraikien edo naturalen zerrenda zehaztea da, hau da, interes artistikoa, kulturala, historikoa, ekologikoa edo naturalistikoa, zientifiko-arkeologikoa eta abar dutenez, zaindu egin behar diren elementuen zerrenda osatzea, hondatu edo degradatu ditzaketen balizko esku-hartzeetatik babesteko.

Zerrenda hori dokumentu honetan bertan katalogatutako elementuen zerrendan aipatutako ondasun eta elementuek osatzen dute.

Ondasun eta elementu horiek guztiak dokumentu honetan bertan eta arlo honetan indarrean dauden gainerako lege-xedapenetan ezarritako babes araubideen mende daude.

### **3.2 KATALOGATUTAKO ONDASUNAK ETA ELEMENTUAK BABESTEKO ARAUBIDEA**

- Katalogatutako ondasunetan eta elementuetan ezin izango da esku-hartze suntsitzailerik edo degradatzailerik egin; bai, ordea, baliorik ez duten edo haien izaera desitxuratzen duten eranskinak ezabatzeko esku-hartzeak.
- Dagokion udal lizentzia eskatu aurretik, ezarritako zaintza helburuen testuinguruan, proiektatutako esku-hartzeen egokitasunari buruzko kontsulta egin ahal izango du eragindako jabe edo sustatzaileak Udalaren aurrean, baita eraikuntza eta bere elementuak zaintzeko betebeharren materializazio zehatzari buruzkoa ere.

Horretarako, aurreproiektu edo dokumentu bat aurkeztuko dio Udalari, egin beharreko obraren oinarriko alderdiak behar besteko zehaztasunez definitzen duena.

Udalak kontsulta horren aurrean duen jarrerak ez du esan nahi lizentziari buruzko ebazpenean baldintza gehigarriak zehaztu ezin direnik.

Nolanahi ere, jabeak edo sustatzaileak lizentzia eskaera zuzenean egiteko aukera izango du, baina aurkeztutako proiektua, baliozkoa izan dadin, udal ebazpenean ezarritako baldintzetara egokitu beharko da, eta, are, baimentzea



eskatzen den esku-hartzea atzera bota ahal izango da, ematen diren txosten teknikoetan ezarritako kontserbazio irizpideetara egokitzen ez bada.

- Kontsulta eta eraikuntza edo obra proiektua dagozkien erakundeei bidaliko zaie –Eusko Jaurlaritzari edo Gipuzkoako Foru Aldundiari–, baldin eta proiektatutako esku-hartze horiek erakunde horien legezko tutoretzapean eta esku-hartzepean dauden ondasunei eragiten badiete.
- Katalogatutako ondasunetan egin beharreko obrek, betiere, aurreko ataletan aipatutako ebazpenetan ezarritako babes baldintzak bete beharko dituzte.
- Eraikinen edo haien elementuen aurri-deklarazioa, baldin eta Euskal Kultura Ondareari buruzko 2019ko maiatzaren 9ko Legean ezarritako araubidearen mende badaude, lege horretan ezarritako araubidearen eta prozeduraren arabera izango da.
- Kultura Ondarearen Zentroaren 1997ko irailaren 11ko Erabakiak eragindako eremuak eta elementuak bertan ezartzen den babes arkeologikoko erregimenaren mendean egongo dira.

#### **4 BABESTUTAKO ONDAREA KOKAPENA**

Babestutako ondarearen kokapena HAPO-aren "D" Dokumentua. Planoak dokumentuko O.01 Babestutako Ondarea planoan erakusten da.



## **5 BABESTUTAKO ONDAREA FITXAK**

Ondoren babestutako ondarearen fitxak eranstean dira:



**SAN MIGEL ELIZA**

**KODEA: 370001**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
		X	X		X			

ELEMENTU MOTA: Eliza  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 48A  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: 7067019  
 UTM X: 570595.170  
 UTM Y: 4767076.637

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua  Lurzoru urbanizagarria  Lurzoru urbanizaezina



#### ERABILERA

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input checked="" type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	--------------------------	-----------	--------------------------	-------------	-------------------------------------

#### DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m <sup>2</sup> ):	682 m <sup>2</sup>
Profila:	Behe solairua
<b>Mazelaren orientazioa:</b>	<b>Hegoa</b>
Eraikitze data:	XVI Mendea

#### BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Oinarrizko babesa duen kultur ondasun deklaratzeko proposatutako higiezia.  
EJ-k Balizko eremu arkeologiko aitortua, 1997-ko irailaren 11-ko erabakian.  
Aldundiaren katalogoan, 1990-07-03.

Areto oinplanoko eliza, habearteak bi atal ditu kanoi ganga beheratuez estaliak, alde lau batean mentsula erdizilindrikoak euskarri dituzten arku toralen gainean bermatuak. Abside zuzena. Sarrera bigarren atalean dago. Koruak zurezko egitura du eta zurezkoa ere den arku karpanel batean bermaturik dago.

Gipuzkoan beste eliza askotan gertatzen den bezala, San Migel eliza hau ere XVI. mendean beste eliza zaharrago bat berri eta haundituta eraikia da.

Agirietan begiratuta, antzinako eliza gotiko haren aipamenik zaharrena 1409koa da.



**UDALETXE ZAHARRA**

**KODEA: 370016**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X					

ELEMENTU MOTA:

Udaletxea???

KOKAPENA

HELBIDEA:

Gaintza Barreiatua, 14X

KATASATRO ERREFERENTZIA:

7067016

UTM X:

570587.619

UTM Y:

4767120.311

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	X	Lurzoru urbanizagarria		Lurzoru urbanizaezina	
---------------	---	------------------------	--	-----------------------	--



### ERABILERA

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input checked="" type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	--------------------------	-----------	--------------------------	-------------	-------------------------------------

### DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): 90 m<sup>2</sup>

Profila: Behe solairua + 2 solairu

**Mazelaren orientazioa:**

Eraikitze data: XX Mendea

### BABESAREN DESKRIPZIOA

Aldundiaren katalogoan, **data???**.

Jatorrizko udaletxea sute batek eraitsi zuen 1912an. Balkoi korrituak eta armarría zentratuak ere adierazten dute eraikinaren izaera ofiziala. Behe-solairuko baoak erdi-puntuako arkutan ebatziak dauzka, eta gainerakoak berriz, dintelduak ditu. Horiek guztiak, baina, berrikitan eginak dira. Alboetako fatxadak zarpeatu eta zuriz pintatuak daude.



**TOURSEKO SAN MARTIN ERMITA**

**KODEA:** **370015**  
**370002**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
		X	X		X			

ELEMENTU MOTA: Ermita  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 18A  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: 7166012  
 UTM X: 571073.178  
 UTM Y: 4766780.046

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------



### ERABILERA

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input checked="" type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	--------------------------	-----------	--------------------------	-------------	-------------------------------------

### DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): 48 m<sup>2</sup>  
Profila: Behe solairua  
**Mazelaren orientazioa:**  
Eraikitze data: XVI Mendea

### BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Udal babeseko kultur ondasun gisa tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoa.

EJ-k Balizko eremu arkeologiko aitortua, 1997-ko irailaren 11-ko erabakian.

Aldundiaren katalogoan, 1990-07-03.

Oinplano errektangularreko nabe bakarra eta zortzialdeko elizburua dituen baseliza txikia. Sei isurkiko estaldura, zurezko egitura duela. Zarpiauriko manposteriazko hormak, eskantzu eta atelehio zuloen galandetan silarizkoak dituztela. Alboko hormak aurrerago ateratzen dira fatxada nagusian, arkupe estali txikia eginez; arkupe horretako teilatuak kanpandengi apala babesten du. Bertatik sartzen da ermitara, ataburuko ate bat igaroz.

Aintzinako bide baten ondoko leku estrategikoan egoteagatik, Santiago bideari lotuta dagoen bere izenagatik eta, azkenik, gaur egun ere bizirik dauden tradizioengatik ez litezke gehiegizkoa esatea ermitak jatorria Erdi Aroan duela.

Hala ere dokumentu bidez ezagutzen ditugun aurreneko berriak XVI. mendearen bigarren erdikoak dira. Arkupeko urbedeinkatuontziak 1693 urtea du grabaturik; eraikuntza edo eraldatze obra handiak egin zirenekoa izan daiteke data hori.

Elormendi baserriaren ondoan zegoen. Oinplano laukizuzeneko eraikina, abside trapezoidala eta sei isurialdeko estalkia. Sarrera arku zuzeneko baotik, elizpe txiki batek babestua eta eskubian urbedeinkatuaren ontzia, 1693 datarekin. Barruan erretaula barrokoa dago, haren erdian San Martinen irudia (1673).

1568ko dokumentazioan aipatzen da.



**GOROSTIZU HAUNDI BASERRIA**

**KODEA: 370011**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
		X	X					

ELEMENTU MOTA: Baserría  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 29  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: 6967004  
 UTM X: 569762.785  
 UTM Y: 4766974.100

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input checked="" type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input checked="" type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	-------------------------------------	-------------	-------------------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------

**DESKRIPZIOA**



---

Behe solairuko azalera (m <sup>2</sup> ):	344 m <sup>2</sup>
Profila:	Behe solairua + Solairu 1 + Teilatupea
<b>Mazelaren orientazioa:</b>	
Eraikitze data:	XVI Mendea

### **BABESAREN DESKRIPZIOA**

EJ-k Oinarrizko babesaren duen kultur ondasun deklaratzeko proposatutako higiezinaren katalogoan, 1990-07-03.

Baserría oinplano errektangularrekoa da, bi oin ditu eta teilatua bi isurkikoa. Itxura apalekoa den arren, harlangaitzeko hormen barruan zurezko egitura bikaina du, oraindik habe luzeko tolairearen arrastoak dituena. Horregatik, sortzez XVI. mendekoa dela esan dezakegu.

Oso deigarria da zurezko egitura horren egoera, oso ondo iraun baitu gaur arte. Kalitate handikoa eta pieza batzuen neurria azpimarratu liteke.

Gorostizuaundi se sitúa sobre una amplia loma al O del casco rural de Gaintza. Caserío de planta rectangular de 22,00 x 16,60 m., dos plantas, desván y bodega. Cubierta de madera a dos aguas en teja canal artesana y con gallur perpendicular a la fachada principal de orientación SE. Muros perimetrales de mampostería revestida y encalada en su mayor parte. La fachada principal posee cinco postes enterizos, arrancando algunos de ellos desde poyos en el suelo hasta la cubierta. Entre ellos, los vanos están cerrados por mampostería. En su planta baja, en la parte central, se abren dos portones de madera que dan acceso al interior. Entre ellos se abre una pequeña ventana y a la derecha de los portones existen dos ventanas. A la izquierda, hay otra puerta de acceso, así como otra ventana, a la que se accede desde una pequeña terraza adosada, cerrada por un pretil, que existe por este lado.

En la primera planta son visibles hasta seis ventanas de distintas proporciones y medidas, todas con marco de madera; en el desván, otra línea de cuatro ventanas de proporciones similares a las anteriores. En el hastial y bajocubierta existen tres palomares de forma triangular. Toda esta fachada es de composición anárquica y no guarda simetría.



La fachada NE posee un anejo adosado en su parte central cuyo tejado es una prolongación del paño de la cubierta de este lado. En este lado se abre un portón de madera que da acceso al interior del desván, a través de una rampa de tierra, aprovechando el desnivel del terreno. En la fachada NO, que en parte ha perdido el muro de mampostería y ha sido restaurada con bloques de cemento, presenta en el hastial cierre de tablazón de factura reciente. Sólo es visible el lado NE de esta fachada, estando el resto cubierto por un gran anejo que es una prolongación del edificio original, y que fue añadido en el siglo XIX. El tejado de este anejo es una continuación de la cubierta del antiguo edificio. En la fachada SO es visible el anejo citado anteriormente, formando un solo paño con el edificio original. En esta fachada, en su parte antigua, son visibles un portón de entrada y una ventana en la planta baja, y dos balcones antepechados y otra ventana en la primera planta, así como dos pequeños huecos con antepechos en el bajocubierta. En el anejo citado tiene exteriormente características similares al edificio principal.

El interior se divide en seis crujías longitudinales y tres transversales. En los ejes se sitúan postes enterizos de gran sección que arrancan desde el suelo natural sobre poyos de piedra. En el eje central alberga los restos de un gran lagar de viga en el que destacan los dos pórticos completos con dos bernias cada uno de ellos.

La bodega ocupa todo el lado SO y también el lado NO, prolongándose en el bajo del gran anejo citado anteriormente.

Gorostizu es un edificio del siglo XVI que no ha sufrido alteraciones de envergadura en su estructura. Le fueron añadido en época posterior (siglo XIX?) un gran anejo por el lado NO. También, hasta época reciente, albergó dos viviendas sin división física entre ellas.

Sobrio y rústico caserío que posee una magnífica y soberbia estructura de época gótica (siglo XVI), con elementos en madera incomparables respecto a ningún otro edificio de esta tipología, pues son postes, vigas y tornapuntas de una sección sin parangón. A modo de ejemplo, uno de los postes-ejes tiene en las cuadras, en la planta baja, hasta 1,00 m. de anchura, y en la primera planta, en el pajar, uno de los postes mide 0,70 x 0,50 m. de sección. Alguna de las tornapuntas alcanza los 0,40 x 0,25 m. de sección. La estructura del lagar de viga está bastante completa habiendo desaparecido la masera y los sovigaños.



**AGERRE BASERRIA**

**KODEA: 370012**



ONDARE ARKITEKONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
		X	X					

ELEMENTU MOTA: Baserria  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 2  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: 7066010  
 UTM X: 570271.389  
 UTM Y: 4766409.772

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input checked="" type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	-------------------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------



## DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m <sup>2</sup> ):	379,14 m <sup>2</sup>
Profila:	Behe solairua + Solairu 1 + Teilatupea
<b>Mazelaren orientazioa:</b>	
Eraikitze data:	XVI Mendea

## BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Oinarrizko babesa duen kultur ondasun deklaratzeko proposatutako higiezia.  
Aldundiaren katalogoan, 1990-07-03.

Agerre-Etxeaundi se sitúa sobre una loma al S del núcleo rural de Gaintza.

Edificio de planta rectangular de 29,50 m. x 19,50 m. Cubierta a dos aguas con un faldón en cola de milano situado en el lado NO. Teja canal artesana y mecánica. Consta de dos plantas y desván. La fachada principal antigua es de orientación SO y el gallur es paralelo a esta fachada. Los muros son de mampostería, aunque también en parte son de cemento. La estructura interior, en su parte original, se apoya en postes enterizos, un muro que, en parte, corresponde a la antigua fachada NO, otro muro situado en la parte central, que sirve de división de las dos propiedades en que se divide este caserío, y otro tercero que corresponde a la antigua fachada SE.

En el interior posee la estructura de un lagar de viga de la que se mantienen cuatro bernias, una contrabernia y otros restos tales como las dobles vigas cumbreras.

Caserío originario del siglo XVI que, originariamente, era unifamiliar y que fue dividido en dos viviendas, posiblemente en el siglo XIX. Cada una de ellas realizó una ampliación añadiéndole la vivienda NO una crujía por ese lado. La vivienda SE hizo una ampliación en el año 1953.

Destaca por sus soberbias estructuras con postes enterizos de gran sección, de 0,55 x 0,40 m., tornapuntas también de extraordinaria sección, lagar de viga que mantiene cuatro bernias y una contrabernia, que hacen que esta estructura sea una de las más valiosas de toda la comarca. Los postes, vigas y tornapuntas son de una sección sin parangón, comparables al caserío vecino Gorostizaundi.



**ERMENTARI BERRI BASERRIA**

**KODEA: 370009**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X					

ELEMENTU MOTA: Baserría

KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 24

KATASATRO ERREFERENTZIA: 7067007

UTM X: 570505.064

UTM Y: 4767193.013

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua  Lurzoru urbanizagarria  Lurzoru urbanizaezina



### ERABILERA

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input checked="" type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	-------------------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------

### DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): 132 m<sup>2</sup>  
Profila: Erdisotoa + Behe solairua + Solairu 1  
**Mazelaren orientazioa:**  
Eraikitze data: **xxxxxxx**

### BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Udal babeseko kultur ondasun gisa tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoa.

Aldundiaren katalogoan, 1990-07-03.

Oso interes haundiko baserria ez den arren, horma eta leiho ertzak harlanduz eginak dituen bakarretakoa da Gaintzan.

Leku haitzesuan dagoenez eta egurrezko egitura egoera txarrean zuenean, haizearen eragina gero eta nabarmenagoa zen eta hormak pitzatzen eta egitura ahultzen hasita zituen.



**ARANBURU BEKOA BASERRIA**

**KODEA: 370004**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X	X				

ELEMENTU MOTA: Baseria  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 6  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: 7066004  
 UTM X: 570045.261  
 UTM Y: 4766619.387

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input checked="" type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	-------------------------------------	-------------	--------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------

**DESKRIPZIOA**



---

Behe solairuko azalera (m <sup>2</sup> ):	336 m <sup>2</sup>
Profila:	Erdisotoa + Behe solairua + Teilatupea
Mazelaren orientazioa:	
Eraikitze data:	XVI

### BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Udal babeseko kultur ondasun gisa tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoa.

EJ-k Balizko eremu arkeologiko aitortua, 1997-ko irailaren 11-ko erabakian.

Aldundiaren katalogoan.

Oinplano errektangularra eta bi isurkiko estaldura dituen eraikin librea. Bi oin altu. Manposteriazko horma zarpiatuak.

Oholez itxitako hormapikoak.

Egitura ezezik itxidurak ere zurezkoak izateak agerian jartzen du baserri hau aintzinakoa dela oso; horri begiratuta esan dezakegu XVI. mendearen bigarren erdian duela bere jatorria.

Barrutik erorita dago.



**AMIAMA BASERRIA**

**KODEA: 370005**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X					

ELEMENTU MOTA: Baserría  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 4  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: XXXXXXXX  
 UTM X: 571395.183  
 UTM Y: 4766998.519

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input checked="" type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	-------------------------------------	-------------	--------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------

**DESKRIPZIOA**

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): 336 m<sup>2</sup>



Profila: Erdisotoa + Behe solairua +  
Teilatupea  
Mazelaren orientazioa:  
Eraikitze data: XXXXXX

### BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Udal babeseko kultur ondasun gisa tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoa.

Aldundiaren katalogoan, 1990-07-03.

Edificio formado por tres cuerpos adosados, con cubierta dos de ellos a dos aguas y el otro a cuatro aguas. Muros de mampostería. Acceso principal adintelado en sillería y fachada posterior en arco de medio punto rebajado adovelado.

En fachada principal mandio-zubia de mampostería. En la actualidad se encuentra deshabitado. Altura dos plantas



**IRAZUSTAGOENA BASERRIA**

**KODEA: 370014**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X	X				

ELEMENTU MOTA: Baserria

KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 34

KATASATRO ERREFERENTZIA: 7168001

UTM X: 571082.219

UTM Y: 4767955.698

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input checked="" type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	-------------------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------



## DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m <sup>2</sup> ):	176 m <sup>2</sup>
Profila:	Behe solairua + Solairu 1
<b>Mazelaren orientazioa:</b>	
Eraikitze data:	XIX Mendea

## BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Balizko eremu arkeologiko aitortua, 1997-ko irailaren 11-ko erabakian.  
Aldundiaren katalogoan.

Oinplano laukizuzena eta bi isurialdeko estalkia dituen eraikina. Eskantzuetan harlanduak dituen harlangaitzezko horma zarpiatuz egina dago.

Fatxadetan interes gabeko baoak banatzen dira eta erregulariki banaturik daude.

LOPE MARTINEZ DE ISASTIK, 1625an, Gaintzako "Irasuzta" aipatzen du Gipuzkoako oinetxeen artean (Martinez de Isasti, 1972: 109).



**IRAZUSTAZPIKOA BASERRIA**

**KODEA: 370013**



ONDARE ARKITEKONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X	X				

ELEMENTU MOTA: Baserria  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 35  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: 7168002  
 UTM X: 571128.131  
 UTM Y: 4767983.165

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input checked="" type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	-------------------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------



## DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m <sup>2</sup> ):	259 m <sup>2</sup>
Profila:	Behe solairua + Solairu 1 + Teilatupea
<b>Mazelaren orientazioa:</b>	
Eraikitze data:	XX Mendea

## BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Balizko eremu arkeologiko aitortua, 1997-ko irailaren 11-ko erabakian.  
Aldundiaren katalogoan.

Oinplano laukizuzena eta bi isurialdeko estalkia dituen eraikina. Harlangaitzezko hormak ditu eta zarpiatuz egina daude.

Fatxadetan interes gabeko baoak banatzen dira eta erregulariki banaturik daude.

LOPE MARTINEZ DE ISASTIK, 1625an, Gaintzako "Irasuzta" aipatzen du Gipuzkoako oinetxeen artean (Martinez de Isasti, 1972: 109).



**ORKAIZTEGI BASERRIA**

**KODEA: 370010**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X	X				

ELEMENTU MOTA: Baserría

KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 41 - 42

KATASATRO ERREFERENTZIA: 6967001  
6967003

UTM X: 571128.131

UTM Y: 4767983.165

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input checked="" type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	-------------------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------



## DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m <sup>2</sup> ):	494 m <sup>2</sup>
Profila:	Behe solairua + Solairu 1
Mazelaren orientazioa:	
Eraikitze data:	XXXXXXX

## BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Balizko eremu arkeologiko aitortua, 1997-ko irailaren 11-ko erabakian.  
Aldundiaren katalogoan.

Oinplano angeluzuzeneko eraikuntza da, harlangaitz-horma bidez eraikia, eta silarri eskantzuak ditu. Bi solairu eta bi isurkiko estalkia ditu, azken hauek artisau teila kanalez egina. Gibelego fatxadak atxikitako erantsi bat du, egurrezko bilbadura duena. Bi etxebizitza dira. Fatxadan arku karpanel itsutu bitxi bat ikus daiteke, baita lehio rustikoen baak ere.

LOPE MARTINEZ DE ISASTIK, 1625an, Gintzako "Oraztegui" aipatzen du Gipuzkoako oinetxeen artean (Martinez de Isasti, 1972: 109).



**ARMENDARIZ FRONTOIA**

**KODEA: XXXXXX**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X					

ELEMENTU MOTA: Frontoia  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 48X  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: 7067020  
 UTM X: 570577.401



UTM Y:

4767036.158

#### LURZORUAREN SAILKAPENA

Hiri Lurzorua	<input checked="" type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input type="checkbox"/>
---------------	-------------------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	--------------------------

#### ERABILERA

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input checked="" type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	--------------------------	-----------	--------------------------	-------------	-------------------------------------

#### DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): 380 m<sup>2</sup>

Profila: Behe solairua

Mazelaren orientazioa:

Eraikitze data: 1988-1993

#### BABESAREN DESKRIPZIOA

EJ-k Udal babeseko kultur ondasun gisa tratatzeko proposatutako elementu arkitektonikoa.

Ez dago Aldundiaren Katalogoan.

adsfadsfadsfadfa



**AGERREBEKOA BASERRIA**

**KODEA: 370003**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X					

ELEMENTU MOTA: Baserria  
 KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 3  
 KATASATRO ERREFERENTZIA: 7066009  
 UTM X: 570299.033  
 UTM Y: 4766133.614

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input checked="" type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	-------------------------------------	-------------	--------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------

**DESKRIPZIOA**

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): 143 m<sup>2</sup>  
 Profila: Behe solairua + Solairu + Teilatupea



**Mazelaren orientazioa:**

Eraikitze data:

xxxxx

**BABESAREN DESKRIPZIOA**

Aldundiaren Katalogoan.

Edificio de planta rectangular y tejado a dos aguas. Altura dos plantas. Gallur paralelo a fachada principal. Muros de mampostería con contrafuerte en una de sus esquinas. Puerta de dos hojas y cercos de ventana de madera. Adosado en fachada lateral cerrado con tablazón. Chimenea cuadrada.



**KALBARIOA**

**KODEA: 370008**



ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X					

ELEMENTU MOTA:	Kalbarioa
KOKAPENA	HELBIDEA: --
	KATASATRO ERREFERENTZIA: --
	UTM X: --
	UTM Y: --

**LURZORUAREN SAILKAPENA**

Hiri Lurzorua	<input checked="" type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	-------------------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

**ERABILERA**

Erabilerarik gabe	<input checked="" type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	-------------------------------------	-------------	--------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------

**DESKRIPZIOA**



---

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): --  
Profila: --  
Mazelaren orientazioa: --  
Eraikitze data: **xxxxx**

### **BABESAREN DESKRIPZIOA**

Aldundiaren Katalogoan.

San Migel elizatik San Martin de Eizmendi ermitara doan bidean jarritako burdinazko zenbait gurutzek osatzen dute.



**BARRIOLA BEKOA BASERRIA**

**KODEA: 370006**

Ez dago argazkirik

ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X					

ELEMENTU MOTA: Baserria

KOKAPENA HELBIDEA: Gaintza Barreiatua, 15

KATASATRO ERREFERENTZIA: 6967006

UTM X: 569377.438

UTM Y: 4767262.034

#### LURZORUAREN SAILKAPENA

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

#### ERABILERA

Erabilerarik gabe	<input checked="" type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input checked="" type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	-------------------------------------	-------------	-------------------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------

#### DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): 125 m<sup>2</sup>

Profila: Behe solairua + Solairu 1 + Teilatupea

Mazelaren orientazioa:

Eraikitze data: xxxxx

#### BABESAREN DESKRIPZIOA

Aldundiaren Katalogoan.

Dafdadfasdfadfadf



OTOBINEA BASERRIA (OTEÑE???)

KODEA: 370007

Ez dago argazkirik

ONDARE ARKITEKTONIKOA				ONDARE ARKEOLOGIKOA				
KULTURA ONDARE PROPOSATUA				BALIZKO ARKEOLOGIA EREMUA				
BABES MAILA				MUGAKETA				
BEREZIA	ERTAINA	OINARRIZKOA	UDAL BABESA	A	B	C	D	E
			X					

ELEMENTU MOTA:

Baserria

KOKAPENA

HELBIDEA:

Gaintza Barreiatua, 19 20

21???

KATASATRO ERREFERENTZIA:

7166006

7166010

7166009

UTM X:

571240.172

UTM Y:

4766307.929

#### LURZORUAREN SAILKAPENA

Hiri Lurzorua	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizagarria	<input type="checkbox"/>	Lurzoru urbanizaezina	<input checked="" type="checkbox"/>
---------------	--------------------------	------------------------	--------------------------	-----------------------	-------------------------------------

#### ERABILERA

Erabilerarik gabe	<input type="checkbox"/>	Etxebizitza	<input checked="" type="checkbox"/>	Industria	<input type="checkbox"/>	Ekipamendua	<input type="checkbox"/>
-------------------	--------------------------	-------------	-------------------------------------	-----------	--------------------------	-------------	--------------------------

#### DESKRIPZIOA

Behe solairuko azalera (m<sup>2</sup>): 125 m<sup>2</sup>

Profila: Behe solairua + Solairu 1 +  
Teilatupea

Mazelaren orientazioa:

Eraikitze data: xxxxx

#### BABESAREN DESKRIPZIOA



Aldundiaren Katalogoan.

Dafdadfasdfadf

Gaintza, 2024ko azaroa.

**Fdo.: Josu Aranguren Etxeberria**

Industria ingeniaria

**Fdo.: Maider Romo Arizmendi**

Arkitektoa